- 2.- Excepcionalmente, cuando en programas de fomento de ciertas zonas especialmente deprimidas se prevea contemplar a instancia de las Administraciones Locales, entre otras medidas, la creación de oficinas de farmacia, se podrá autorizar dicha creación en municipios de menos de 800 habitantes.

Reglamentariamente se determinarán el procedimiento y el baremo para su autorización.

#### Artículo 15.-

- 1.- El emplazamiento de una nueva oficina de farmacia deberá guardar una distancia de, al menos, 250 metros respecto de la oficina más próxima, sea o no de la misma zona de salud.
- 2.- Excepcionalmente, en aquellas zonas farmacéuticas de densidad mayor a 4000 hab/km<sup>2</sup> se podrá establecer reglamentariamente una escala en la que en función de la densidad de cada zona de

goen arteko distantzia gutxienez 150 metrokoa izatera murriztu ahal izateko eskala erregelamenduz ezarri ahal izango da, horiekin mugakide diren osasun-zonetako farmazi bulegoei buruz orokorki ezarritako distantzia errespetatuz.

- 3.- Instalazio berria edo lekualdaketa dela eta farmazi bulego berri bat jartzerakoan, 150 metro baino gutxiagokoa ez den distantzia gorde beharko da hurbilen dagoen Servicio Vasco de Salud-Osakidetzaaren menpeko beste edozein osasun-zentrorekiko.
- 4.- Farmazia bakarra duten udalerrietan ez da irizpide hori jarraituko.
- 5.- Erregelamenduz finkatuko da farmazi bulegoen arteko eta hauen eta osasun-etxeen arteko distantziak neurtzeko prozedura.

### 3. SEKZIOA

#### Farmazi bulegoen lekualdaketa

##### 16. atala.-

- 1.- Farmazi bulegoak kokatuak daudeneko zona farmazeutikoaren barruan bakarrik lekuz aldatu ahal izango dira.
- 2.- 10.1.a) atalean aurrikusitako zona farmazeutiko batean ezarriak dauden farmazi bulegoek beren kokalekua aldatu ahal izango dute:
  - a) Beren osasun-zonaren barruan, beti ere kokaleku berriak lege honetan aurrikusitako betebeharrak betetzen baditu.
  - b) Beste osasun-zona batera, baldin eta ondorengo baldintzak betetzen badira:
    - 1.- Kokaleku berriak bete ditzala lege honetan aurrikusitako betebeharrak.
    - 2.- Farmazi bulegoko biztanleen proportzioa, lekuz aldatu nahi dueneko osasun-zona horretan, ez dadila izan farmazi bulegoko 2.500 biztanlekoa baino txikiagoa, behin lekualdaketa egin ondoren.
    - 3.- Jatorrizko osasun-zona ez dadila geratu farmazi bulegorik gabe.
- 3.- 10.1.b) atalean aurrikusitako zona farmazeutiko batean ezarriak dauden farmazi bulegoek beren kokalekua aldatu ahal izango dute:
  - a) Udalerri bakarreko zona farmazeutikoa baldin bada, udalerri bereko edozein lekutan, beti ere lege honen betebeharrak betetzen baditu.
  - b) Udalerri bat baino gehiago dituen zona farmazeutikoa baldin bada, 11.3 atalean jaso-

salud pueda reducirse la distancia entre oficinas de farmacia ubicadas en las mismas hasta un mínimo de 150 metros, respetando la distancia establecida con carácter general respecto a las oficinas de farmacia de las zonas de salud colindantes.

- 3.- El establecimiento de una nueva oficina de farmacia por razón de nueva instalación o de traslado deberá guardar una distancia no inferior a 150 metros respecto a cualquier centro sanitario dependiente del Servicio Vasco de Salud-Osakidetza.
- 4.- Este criterio no será de aplicación en los municipios de farmacia única.
- 5.- Reglamentariamente se determinará el procedimiento para la medición de distancias entre las oficinas de farmacia, y entre éstas y los centros sanitarios.

### SECCIÓN 3ª

#### Del traslado de oficinas de farmacia

##### Artículo 16.-

- 1.- Las oficinas de farmacia sólo podrán trasladarse dentro de la zona farmacéutica en que estén ubicadas.
- 2.- La oficinas de farmacia instaladas en una zona farmacéutica de las previstas en el artículo 10.1.a) podrán cambiar su emplazamiento:
  - a) Dentro de su zona de salud, siempre que el nuevo emplazamiento cumpla los requisitos previstos en esta ley.
  - b) A otra zona de salud, siempre que se cumplan las siguientes condiciones:
    - 1.- Que el nuevo emplazamiento reúna los requisitos previstos en esta ley.
    - 2.- Que la proporción de habitantes por oficina de farmacia de la zona de salud a la cual quiera trasladarse no resulte inferior, una vez efectuado el traslado, a 2.500 habitantes por oficina de farmacia.
    - 3.- Que no quede sin oficina de farmacia la zona de salud de procedencia.
- 3.- Las oficinas de farmacia instaladas en una zona farmacéutica de las previstas en el artículo 10.1.b) podrán cambiar su emplazamiento:
  - a) Si es una zona farmacéutica con un único municipio, en cualquier lugar del mismo municipio, siempre que cumpla los requisitos de esta ley.
  - b) Si es una zona farmacéutica con más de un municipio, resultante de la excepción con-

tako salbuespenaren ondoriozkoa, kokapen berria atal honen 4. idazatian xedatutakora egokituko da.

- 4.- 10.1.c) atalean aurrikusitako zona farmaceutiko batean ezarriak dauden farmazi bulegoek beren kokalekua aldatu ahal izango dute:
- Udalerrri beraren barruan, beti ere kokaleku berriak lege honetan aurrikusitako betebeharrak betetzen baditu.
  - Zona farmaceutiko bereko beste udalerrri batera, baldin eta ondorengo betebeharrak betetzen badira:
    - Kokaleku berriak bete ditzala lege honetan aurrikusitako betebeharrak.
    - Farmazi bulegoko biztanleen proportzioa, lekuz aldatu nahi dueneko udalerrri horretan, ez dadila izan farmazi bulegoko 2.500 biztanlekoa baino txikiagoa, behin lekualdaketa egin ondoren.
    - Jatorrizko udalerrria ez dadila geratu farmazi bulegorik gabe, salbu 800 biztanle baino gutxiago baldin baditu.
- 5.- Irregelamenduz mugatuko dira nahitaezko lekualdaketaen suposamenduak, dela behin-betikoa dela behin-behinekoa. Kasu bietan lehendik badauden bulegoekiko distantzia txikiago bat finkatu ahal izango da, baina inoiz ere ez 125 metro baino txikiagoa.

#### 4. SEKZIOA

##### Farmazi bulegoen eskualdatzea

###### 17. atala.-

- Farmazi bulegoen eskualdatzea, irekieratik edo azkeneko eskualdatzetik gutxienez hiru urte pasa direnean bakarrik egin ahal izango da, botikari titularraren heriotza, jubilazioa, gaitasun-gabetzea edota ausentziako deklarazio judiziala gertatzen den kasuetan izan ezik.
- Farmazi bulegoen eskualdatzea egiteko Osasun Sailaren baimena beharko da alde zuzenetatik. Atal honetako 3. zenbakian aurrikusi gabeko kostubidezko eskualdatzeak egin baino lehen, eskualdatzaileak osasun-administrazioari jakinaraziko dizkio eskualdatzearen prezioa eta gainontzeko baldintza orokorrak.

Osasun-administrazioak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarri emango du jakitera meritu-lehiaketaren hasiera, eta hori, eskualdatzaileak egindako eskaintzaren -hau administrazio-espeditentean azaltzen den esate-modu eta neurri beretakoa izango da-baldintzak onartzen

templada en el artículo 11.3, la nueva ubicación se ajustará a lo dispuesto en el apartado 4 de este artículo.

- 4.- Las oficinas de farmacia instaladas en una zona farmacéutica de las previstas en el artículo 10.1.c) podrán cambiar su emplazamiento:
- Dentro del mismo municipio, siempre que el nuevo emplazamiento reúna los requisitos previstos en esta ley.
  - A otro municipio de la misma zona farmacéutica, siempre que se cumplan las siguientes condiciones:
    - Que el nuevo emplazamiento se ajuste a los requisitos previstos en esta ley.
    - Que la proporción de habitantes por oficina de farmacia del municipio al que quiera trasladarse no resulte inferior, una vez efectuado el traslado, a 2.500 habitantes por oficina de farmacia.
    - Que no quede sin oficina de farmacia el municipio de procedencia, salvo que éste tenga menos de 800 habitantes.
- 5.- Reglamentariamente se determinarán los supuestos de traslado forzoso, bien sea definitivo o provisional. En ambos casos se podrá fijar una distancia menor respecto de las oficinas existentes, que en ningún caso podrá ser inferior a 125 metros.

#### SECCIÓN 4ª

##### De la transmisión de oficinas de farmacia

###### Artículo 17.-

- La transmisión de las oficinas de farmacia sólo podrá llevarse a cabo cuando hayan transcurrido, al menos, tres años desde la apertura o desde la última transmisión, salvo por fallecimiento, jubilación, incapacitación o declaración judicial de ausencia del farmacéutico titular.
- La transmisión de las oficinas de farmacia estará sujeta a autorización del Departamento de Sanidad. Previamente a las transmisiones a título oneroso no previstas en el número 3 de este artículo, el transmitente comunicará a la Administración sanitaria el precio y las demás condiciones generales de la transmisión.

La Administración sanitaria hará público, mediante anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco, la apertura de un concurso de méritos para determinar el orden de preferencia para la transmisión entre todos aquellos que acepten las condiciones de la oferta efectuada por el transmi-

dituzten guztien artean lehentasun-hurrenkera zehaztu ahal izateko. Eskualdatzea egiteko baimena, eske-egileen merituak haztatu ondoren, puntu gehien lortzen dituenaren alde emango da. Lehiaketa horietan parte hartzeko, atentzio farmazeutikoarekin zerikusirik duten zerbitzuetakoren batean profesional-lanean hiru urte bete izana ziurtatu beharko dute ezinbestez lehiatzaileek.

- 3.- Hala doako eskualdatzeak oro, nola botikari titularraren seme-alaba, guraso, biloba, anai-arreba, senar edo emaztearentzako kostubidezko eskualdatzeak, erregelamendu bidez ezarriko den prozedurari jarraiki baimenduko dira.

#### 18. atala.-

- 1.- Jubilazio, gaitasun-gabetze edo ausentziako deklarazio judizialaren kasuetan, erregente bat izendatu beharko da farmazi bulegoak atentzio farmazeutikoa ematen jarraitzeko modurik eduki dezan.
- 2.- Erregentea izendatzeko eskaria edota, bere kasuan, farmazi bulegoa ixteko eskaria jubilazio, gaitasun-gabetze edo ausentziako deklarazioa pasa eta 10 eguneko gehieneko epean formulatu beharko da.
- 3.- Aurreko idazatian aipatzen den eskaririk gertatuko ez balitz, ofizios hasiko da farmazi bulegoaren itxiera-espedita.
- 4.- Ausentziako deklarazio judizialaren gaitasun-gabetzeen kasuetan, erregentziak 10 urteko iraupena edukiko du gehienez ere, salbu ausente edo gaitasun-gabetu deklaratu izan denak 65 urte baino gehiago dituzenean deklarazio-datan, eta kasu horietan erregentziaren gehieneko iraupena bost urtekoa izango da.

Behin epe hori pasa ondoren, 18 hilabeteko beste epe bat emango da farmazi bulegoaren eskualdatzea edo itxiera gauzatzeko.

- 5.- Jubilazio-kasuetan, erregentziak bost urteko iraupena izango du gehienez ere, eta denboraldi horretan formalizatu beharko da farmazi bulegoaren eskualdatzea edo itxiera.

#### 19. atala.-

- 1.- Farmazi bulegoko botikari titularraren heriotza gertatuz gero, oinordekoek osasun-administrarioari aditzera eman beharko diote farmazi bulegoa behin-betiko ixteko edota eskualdatzeko beren borondatea.

Aditzera emate hori 10 eguneko epean egingo da gehienez ere eta horrekin batera erregentea izendatzeko proposamena ere aurkeztuko da.

Aipatu jakinarazpen hori egin gabe epea pasa

tente, en los términos en que figure reflejada ésta en el expediente administrativo. La transmisión se autorizará, una vez valorados los méritos de los solicitantes, en favor de aquel que alcance mayor puntuación. Será requisito indispensable para la participación en dichos concursos que se acredite por parte de los concursantes el cumplimiento de tres años de ejercicio profesional en algún servicio relacionado con la atención farmacéutica.

- 3.- Todas las transmisiones a título gratuito, así como las transmisiones a título oneroso a favor de los hijos, padres, nietos, hermanos o cónyuge del farmacéutico titular, se autorizarán con arreglo al procedimiento que se establezca reglamentariamente.

#### Artículo 18.-

- 1.- En los casos de jubilación, incapacitación o declaración judicial de ausencia deberá procederse a la designación de un regente para que la oficina de farmacia pueda seguir prestando la atención farmacéutica.
- 2.- La solicitud de designación de regente o, en su caso, de cierre de la oficina de farmacia deberá formularse en el plazo máximo de 10 días desde la declaración de jubilación, incapacitación o ausencia.
- 3.- En ausencia de la solicitud a que se refiere el apartado anterior, se procederá de oficio a iniciar el expediente de cierre de la oficina de farmacia.
- 4.- En los casos de declaración judicial de ausencia o de incapacitación, la regencia tendrá una duración máxima de 10 años, salvo que el declarado ausente o incapacitado tuviere más de 65 años en la fecha de la declaración, en cuyo caso la regencia tendrá una duración máxima de cinco años.

Transcurrido dicho plazo, se concederá otro de 18 meses para la transmisión o cierre de la oficina de farmacia.

- 5.- En los casos de jubilación la regencia tendrá una duración máxima de cinco años, periodo durante el cual deberá formalizarse su transmisión o cierre.

#### Artículo 19.-

- 1.- En caso de fallecimiento del farmacéutico titular de la oficina de farmacia, los herederos deberán comunicar a la Administración sanitaria su voluntad de cerrar definitivamente o de transmitir la oficina de farmacia.

Dicha comunicación se formulará en el plazo máximo de 10 días y deberá ser acompañada de la propuesta de designación de regente.

Transcurrido dicho plazo sin que se haya reali-

ondoren, osasun-administrazioak ofizioz hasiko du farmazi bulegoaren itxiera-espedientea.

- 2.- Atal honetan araututako erregentziak 18 hilabeteke iraupena edukiko du gehienez ere. Farmazi bulegoaren eskualdatze edo itxierarik eskatu gabe epe hori pasa ondoren iraungi egingo da daukan baimen administratiboa, eta berorren itxiera-espedientea ofizioz tramitatzen hasiko da.

## 20. atala.-

- 1.- Farmazi bulego bateko botikari titularraren heriotza gertatzen denean bere ezkontideak edo seme-alabetakoren batek oinordekotasuna edukiko balu, farmazi fakultateren batean matrikulatua egon eta behin bere ikasketak amaitu eta gero kausatzailearen farmazi bulegoan profesioa egikartzeko bere borondatea agertuko balu, farmazi bulego horrek iharduera jarraitzeko baimena eduki lezake, beti ere oinordekoek eskualdatzeko beren borondatea osasun-administrazioari jakinaraziz gero, aurreko atalaren 1. idazatian aurrikusitakoaren arabera.

Baldin eta hildako botikariaren oinordeko guztiek onuradun bakarraren edo batzuen aldeko eskaria aurretiaz egiten badute, farmazi bulegoaren funtzionamendu-jarraipena baimenduko da, sei urteko denboraldi batez gehienez ere, segun eta zein ikasturtetan dagoen, botikari titularraren heriotza-untetik aurrera.

Epe horretan, farmazi bulegoak derrigor beharko du botikari errege baten iharduketa profesionala.

Jarraitzeko baimena eskatzeko epea bederatzi hilabetekoa izango da kausatzailearen heriotza gertatzen denetik aurrera.

Baimen horren betebeharrak eta baldintzak erregelamendu bidez finkatu edo zehaztuko dira.

- 2.- Farmazi lizentziaturako ikasketak amaitu ondoren, jarraitzeko baimenaren onuradunak edo onuradunek farmazi bulegoaren jabetza ere kreditatu beharko du.

Ikasketak heriotza gertatu eta 18 hilabete baino lehenagoko epean bukatuz gero, jabetza lortzeko 18 hilabeteke epea edukitzen jarraituko du.

Behin lizentziatura lortu eta farmazi bulegoaren jabetza eskuratu ondoren hiru hilabeteke epea edukiko du gehienez ere farmazi bulegoaren eskualdatzea bere mesedetan eskatzeko.

- 3.- Farmazi lizentziaturako ikasketak amaitzerakoan ez balu oraindik lortu farmazi bulegoaren jabe-

zako la referida comunicación, la Administración sanitaria iniciará de oficio el expediente de cierre de la oficina de farmacia.

- 2.- La regencia regulada en este artículo tendrá una duración máxima de 18 meses. Transcurrido dicho plazo sin que se solicite la transmisión o cierre de la oficina de farmacia, se extinguirá la autorización administrativa existente, procediéndose de oficio a tramitar el expediente de cierre de la misma.

## Artículo 20.-

- 1.- Si en el momento del fallecimiento del farmacéutico titular de una oficina de farmacia su cónyuge o alguno de sus hijos o hijas tuviera la cualidad de heredero, estuviese matriculado en alguna facultad de farmacia y manifestase su voluntad de ejercer la profesión en la oficina de farmacia del causante una vez finalizados los estudios, podrá autorizarse la continuidad de la actividad de dicha oficina de farmacia, siempre y cuando los herederos hubieran comunicado a la Administración sanitaria su voluntad de transmitirla, de acuerdo con lo previsto en el apartado 1 del artículo anterior.

La continuidad de funcionamiento de la oficina de farmacia se autorizará previa solicitud de todos los herederos del farmacéutico fallecido a favor de uno o varios beneficiarios, por un período máximo de seis años, en función del curso en que se encuentre, a contar desde el fallecimiento del farmacéutico titular.

Durante dicho plazo, la oficina de farmacia deberá contar necesariamente con la actuación profesional de un farmacéutico regente.

El plazo para solicitar la autorización de continuidad será de nueve meses a contar desde el fallecimiento del causante.

Los requisitos y condiciones de dicha autorización se determinarán por vía reglamentaria.

- 2.- A la finalización de los estudios de licenciatura de farmacia, el beneficiario o beneficiarios de la autorización de continuidad deberán acreditar también la propiedad de la oficina de farmacia.

En caso de que la finalización de los estudios tenga lugar en un plazo inferior a 18 meses a contar desde el fallecimiento, para la obtención de la propiedad seguirán disponiendo del plazo de 18 meses.

Una vez obtenida la licenciatura y alcanzada la propiedad de la oficina de farmacia dispondrán de un plazo máximo de tres meses para solicitar la autorización de transmisión de la oficina de farmacia a su favor.

- 3.- Si a la finalización de los estudios de licenciatura de farmacia no hubieran obtenido la propiedad

tzarik, oinordekoek hiru hilabeteko epea edukiko dute eskualdatzea edo itxiera burutzeko.

#### 21. atala.-

- 1.- Farmazi bulegoaren zatigabeko atala hirugarren ez-oinordeko bati eskualdatzen zaionean, botikari jabekideek legezko atzera-eskuratze eskubidea egikaritu ahal izango dute Kode Zibilean aurrikusitako terminoetan.
- 2.- Farmazi bulego baten zatigabeko atal baten gainontzeko eskualdatzeak, edozein delarik ere bere modalitatea, farmazi bulego bakoitzaren eskualdatzeko 17. atalean deskribatutako arau berberen bidez eraenduko dira, erregentearen izendapena izan ezik, ez baita beharrezkoa izango gainerantzeko titularkideen iharduketa profesionalak jarraitzen duen bitartean.

#### 22. atala.-

Oinordekotzat joko dira lege honen ondorioetarako farmazi bulegoa edo berorren zatigabeko atala barne hartzen duen herentzi zatiaren oinordekoak direnak.

### 5. SEKZIOA Obrak farmazi bulegoetan

#### 23. atala.-

- 1.- Lege honen ondorioetarako, obra bezala hartua izango da farmazi bulegoko lokalaren itxura aldatzen duen edozein lan.
- 2.- Osasun Sailaren alde aurretiko baimena beharko dute sarrerari eragiten dioten obrak, azaleraren handitzea edo txikitzea eta ordurarteko egitura aldatzea suposatzen duten barne-banaketaren aldaketa guztiak.  
  
Gainerantzeko obren berri osasun-administrazioari eman beharko zaio, obra horiek egin aurretik.
- 3.- Obren ezaugarrien arabera eta obra horiek atentzio farmazutikoa eskaintzeko orduan eduki dezaketen eraginaren arabera, osasun-agintaritzak farmazi bulegoaren aldi baterako itxiera erabakitze ahala edukiko du edota, kasua denean, behin-behineko lekualdaketa baimentzekoa.
- 4.- Lege hau indarrean jarri baino lehen irekitako farmazi bulegoen egitura aldatzea dakarten eta 7. atalean aurrikusitako baldintzetara egokitzea xede duten lanak ez dira 15. atalean esaten diren distantzien neurketa berriak egitearen menpe egongo.
- 5.- Irregelamenduz finkatuko dira atal honetan aipatzen diren obrak baimentzeko eta jakinarazteko prozedurak.

de la oficina de farmacia, los herederos dispondrán de tres meses para su transmisión o cierre.

#### Artículo 21.-

- 1.- En caso de transmisión a un tercero no heredero de la porción indivisa de la oficina de farmacia, los farmacéuticos copropietarios podrán ejercitar el derecho de retracto legal en los términos previstos en el Código civil.
- 2.- Las demás transmisiones, en cualquiera de sus modalidades, de una porción indivisa de una oficina de farmacia se regirán por las mismas reglas que las descritas en el artículo 17 para la transmisión de las oficinas de farmacia como unidad, salvo la designación de regente, que no será precisa en tanto persista la actuación profesional del resto de los cotitulares.

#### Artículo 22.-

Se considerarán herederos, a los efectos de esta ley, a los que lo sean de la parte de la herencia que comprenda la oficina de farmacia o porción indivisa de la misma.

### SECCIÓN 5ª De las obras en la oficina de farmacia

#### Artículo 23.-

- 1.- A los efectos de la presente ley, tendrá la consideración de obra cualquier modificación de la configuración del local de la oficina de farmacia.
- 2.- Requerirán autorización previa del Departamento de Sanidad las obras que afecten al acceso, a la ampliación o reducción de la superficie o a una variación en la distribución interna que suponga modificación de la estructura existente.  
  
Las demás obras deberán ser comunicadas a la Administración sanitaria, previamente a su realización.
- 3.- En función de las características de las obras y de su incidencia en la prestación de la atención farmacéutica, la Autoridad sanitaria podrá acordar el cierre temporal de la oficina de farmacia o, en su caso, autorizar el traslado provisional.
- 4.- Las obras que supongan modificación de la configuración del local de oficinas de farmacia establecidas con anterioridad a la entrada en vigor de esta ley y pretendan la adecuación a las condiciones previstas en el artículo 7 no se someterán a nueva medición de las distancias establecidas en el artículo 15.
- 5.- Reglamentariamente se determinarán los procedimientos de autorización y comunicación de las obras a que se refiere el presente artículo.



## 6. SEKZIOA

### Farmazi bulegoen itxiera

#### 24. atala.-

- 1.- Beharrezkoa izango da baimen administratibo-sanitarioa eskatzea farmazi bulegoan behin-betiko itxiera borondatez egin ahal izateko.
- 2.- Erregelamenduz finkatuko dira farmazi bulegoen aldi baterako itxiera baimendu ahal izateko arazoak. Itxiera hori borondatezkoa nahiz nahitaezkoa izan daiteke.
- 3.- Farmazi bulegoen behin-betiko itxiera, edota aldi baterakoa bere kasuan, hala hiritarren atentzio farmazeutikoa nola medikamentuen eta gainerako produktu sanitarioen zaintza, kontserbazioa eta, kasua denean, itzulketak edo suntsipena garrantzuzkoak joko duten neurri egokiak hartu ondoren bakarrik egin ahal izango da.

## IV. ATALBURUA

### Botikinak

#### 25. atala.-

- 1.- 800 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan eta, nahiz eta farmazi bulegoz hornituak egon, urruntasunagatik, gertueneko establezimenduetarekin harremanetan jartzeko zailtasunagatik edota aldi baterako kontzentrazio-arazoengatik atentzio farmazeutikorako osasun-zentro edo establezimenduren bat egotea gomendagarria egiten duten zonak edo auzuneak dituzten udalerrietan, botikin bat ezartzea baimendu ahal izango da.
- 2.- Botikinak, edozein kasutan, zona farmazeutiko bereko edo udalerrri bereko, segun eta egoera nolakoa den, farmazi bulego batekin lotetsiak egongo dira.
- 3.- Dispentsazioa, botikari baten eskutik egingo dena, medikamentuetara eta Osasun sailburuaren agindu bidez finkatuko diren produktu sanitarioetara mugatua geratuko da.
- 4.- Erregelamenduz zehaztuko dira botikinak funtzionatu ahal izateko baldintzak, baimentzeko, sortzeko eta itxeko prozedurak eta baita funtzionamendu-erregimena ere.
- 5.- Baimendutako botikin bat itxi egingo da:
  - a) Farmazi bulegorik ez baina botikin baimendua duen udalerrri batean 800 biztanletik gora edukitzearen ondorioz, edo lege honen 14.2 atalean xedatutakoaren ondorioz, farmazi bulego batek funtzionatzeko baimena ematen denean.
  - b) Lehendik ere farmazi bulegoa bazuen udalerriren bateko zona edo auzune batean

## SECCIÓN 6ª

### Del cierre de las oficinas de farmacia

#### Artículo 24.-

- 1.- Será preciso solicitar autorización administrativa-sanitaria para proceder voluntariamente al cierre definitivo de oficinas de farmacia.
- 2.- Reglamentariamente se determinarán las causas por las que podrá autorizarse el cierre temporal de las oficinas de farmacia. Dicho cierre podrá tener carácter voluntario o forzoso.
- 3.- El cierre definitivo, o en su caso temporal, de las oficinas de farmacia sólo podrá llevarse a cabo una vez se hayan adoptado las medidas oportunas tendentes a garantizar tanto la prestación de la atención farmacéutica a los ciudadanos como la custodia, conservación y, en su caso, la devolución o destrucción de los medicamentos y demás productos sanitarios.

## CAPÍTULO IV

### De los botiquines

#### Artículo 25.-

- 1.- En los municipios de menos de 800 habitantes y en aquellos municipios que, aun estando dotados de oficina de farmacia, tengan zonas o barrios que, por razones de lejanía, dificultades de comunicación respecto al establecimiento más próximo o concentración temporal, hagan aconsejable la existencia de un establecimiento o servicio sanitario para la atención farmacéutica, podrá autorizarse la instalación de un botiquín.
- 2.- Los botiquines estarán, en cualquier caso, vinculados a una oficina de farmacia de la misma zona farmacéutica o del mismo municipio, según los casos.
- 3.- La dispensación, que se realizará por un farmacéutico, quedará limitada a medicamentos y a aquellos productos sanitarios que se determinen mediante orden del Consejero de Sanidad.
- 4.- Reglamentariamente se determinarán las condiciones, procedimientos de autorización, creación y cierre, así como el régimen de funcionamiento de los botiquines.
- 5.- Se procederá al cierre de un botiquín autorizado:
  - a) Cuando en un municipio sin oficina de farmacia pero con botiquín autorizado se autorice el funcionamiento de una oficina de farmacia, como consecuencia de haber superado los 800 habitantes, o como consecuencia de lo dispuesto en el artículo 14.2 de esta ley.
  - b) Cuando desaparezcan las causas que aconsejaron la autorización de un botiquín en

botikin bat baimentzea gomendatu zuten arrazoiak desagertzen direnean.

### V. ATALBURUA

Osakidetzako lehen mailako atentzioko egitura sanitarioetako eta osasun-zentroetako farmazi zerbitzuak

#### 26. atala.-

- 1.- Lehen mailako atentzioko farmazi zerbitzuek medikamentuen erabilerekin zerikusia duten eginkizun eta iharduerak barne hartu eta egituratuko dituzte, ikuspegi kualitatibotik bezala baita kuantitatibotik ere, Osakidetzako lehen mailako atentzian medikamentuen erabilera ahalik eta razionalena izan dadin, osasun-administrazioak ezarritako gidalerroen arabera.
- 2.- Osakidetzan lehen mailako atentzioko zerbitzu sanitarioak ematen dituzten erakundeek farmazi zerbitzu espezifikoak hornituak egon beharko dute.
- 3.- Lehen mailako atentzioko farmazi zerbitzuak horiek eskaintzen dituzten erakundeetako asistentzi zerbitzuen multzoaren barruan egongo dira. Botikari baten ardura eta zuzendaritzapean egongo dira, eta, behar izanez gero, beste botikari laguntzaile batzuen lankidetzaz izango du botikari horrek.
- 4.- Farmazi zerbitzu bat ezarriko da, gutxienez, osasun-eskualde bakoitzeko.
- 5.- Erregelamenduz finkatuko dira lehen mailako atentzioko farmazi zerbitzuek bete beharko dituzten betebeharrak eta baldintza teknikoak.
- 6.- Lehen mailako atentzioko farmazi zerbitzuek ondorengo eginkizunak bete beharko dituzte:
  - a) Beren eraginpeko eremuan medikamentuen erabilera aztertu eta etengabe ebaluatzea.
  - b) Talde asistentzialeko gainerantzekoekin koordinatuak egotea, medikamentuen erabilera razionalari buruzko programak aplikatzeko.
  - c) Osasun-profesionalak informatu eta hezteko medikamentuen erabileran.
  - d) Populazioaren heziketa sanitarioa egiteko medikamentuen inguruan.
  - e) Farmakozaintzako programetan kolaboratzea.
  - f) Medikamentuak eskuratu, almagatu, zaindu, kontserbatu eta dispensatzeari erantzukizun teknikoak garantizatu eta bere

zona o barrio de algún municipio que ya disponía de oficina de farmacia.

### CAPÍTULO V

De los servicios de farmacia de los centros de salud y de las estructuras sanitarias de atención primaria del Sistema Vasco de Salud

#### Artículo 26.-

- 1.- Los servicios de farmacia de atención primaria englobarán y estructurarán, tanto desde el punto de vista cualitativo como cuantitativo, las funciones y actividades relacionadas con la utilización de los medicamentos orientadas a que el uso de medicamentos en atención primaria en el Sistema Vasco de Salud sea el más racional posible, de acuerdo con las directrices que establezca la administración sanitaria.
- 2.- Las entidades proveedoras de servicios sanitarios de atención primaria del Sistema Vasco de Salud deberán estar dotadas de servicios de farmacia específicos.
- 3.- Los servicios de farmacia de atención primaria serán parte integrante del conjunto de servicios asistenciales de las entidades que los suministren. Estarán atendidos bajo la responsabilidad de un farmacéutico, quien podrá contar, en su caso, con farmacéuticos adjuntos.
- 4.- Se establecerá, al menos, un servicio de farmacia por cada comarca sanitaria.
- 5.- Reglamentariamente se determinarán los requisitos materiales y las condiciones técnicas con que habrán de contar los servicios de farmacia de atención primaria.
- 6.- Los servicios de farmacia de atención primaria desarrollarán las siguientes funciones:
  - a) El estudio y la evaluación continuada de la utilización de medicamentos en su área de influencia.
  - b) La coordinación con el resto del equipo asistencial para la aplicación de programas relativos a la utilización racional del medicamento.
  - c) La información y la formación a los profesionales sanitarios en la utilización de medicamentos.
  - d) La educación sanitaria en medicamentos a la población.
  - e) La colaboración en los programas de farmacovigilancia.
  - f) La garantía y la responsabilidad técnica de la adquisición, almacenamiento, custodia, conservación y dispensación de medica-

gain hartzea, lehen mailako atentzioko egituren barruan aplikatzeko edota behaketa, gainbegiratze edo kontrol berezia eskatzen dutentzat. apirilaren 25eko Osasun Lege Orokorren 103. atalean adierazitakoaren arabera.

- g) Lehen mailako atentzioko gainerantzeko zerbitzuekin batera osasunaren prebentzio, babeskuntza eta sustapeneko programen elaborazio eta egikaritzan, hala nola ikerketa sanitarioan, parte hartzea.
- 7.- Lehen mailako atentzioko zerbitzu farmaceutikoei dagokie farmazi bulegoen eta lehen mailako atentzioko pertsonalaren arteko koordinazioa, medikamentuaren erabilera razionalaren, osasun-sustapenaren, gaixotasunen prebentzioaren eta heziketa sanitarioaren inguruan sortu edo bultzatuko diren iharduerak egikaritzeko.

## VI. ATALBURUA

Atentzio farmaceutikoa ospitaleetan eta zentro sozio-sanitarioetan

### 27. atala.-

- 1.- 3. atalean xedatutakoaren arabera, ospitale eta, hala badagokio, zentro sozio-sanitarioetako atentzio farmaceutikoa ospitaleko farmazi zerbitzuen eta medikamentu-gordailuen bitartez emango da.
- 2.- Derrigorrezkoa izango da ospitaleko farmazi zerbitzu bat ezartzea:
- a) Ehun ohe edo gehiago dituzten ospitale guztietan.
- b) Ehun ohetik behera eduki arren, beren tipologia eta iharduera asistentzialaren munta dela medio, medikamentuen erabilera kualifikazio espeziala dutelako erregelamenduz finkatzen den ospitaleetan.
- 3.- Derrigorrezkoa izango da medikamentuen gordailu bat ezartzea ehun ohetik behera duten ospitaleetan, beti ere beren borondatez edota aurreko idaztiaren b) puntuari sartuak egoteagatik ospitaleko farmazi zerbitzurik martxan jarrita ez baldin badute.
- 4.- Lege honen ondorioetarako honako hauek joko dira zentro sozio-sanitarioetat: zenbait biztanlesailen, hala nola, zaharren, baliogutxituen eta beren osasun-egoerak, zentroak ematen dizkieten gizarte-zerbitzuek gainera, osasun-asistentzia jakin baten beharcan aurkitzen den beste edozein atentitzen aritzen direnak.

Zentro hauek, alor horretan aginpideak dituzten sailen proposamenez erregelamendu bidez zehaztutako kasu eta moduetan, farmazi zerbitzuak edo medikamentu-gordailuak jartzera behartuta egongo dira, zentroen ahalbideen eta atentitzeko

mentos para su aplicación dentro de las estructuras de atención primaria o para los que exijan una particular vigilancia, supervisión y control, de acuerdo con el artículo 103 de la Ley 14/86, de 25 de abril, General de Sanidad.

- g) La participación, junto con los demás servicios de atención primaria, en la elaboración y ejecución de programas de prevención, protección y promoción de la salud, así como en la investigación sanitaria.
- 7.- A los servicios farmacéuticos de atención primaria les corresponde la coordinación entre las oficinas de farmacia y el personal de atención primaria para la ejecución de las actividades que se promuevan en relación con el uso racional del medicamento, la promoción de la salud, la prevención de enfermedades y la educación sanitaria.

## CAPÍTULO VI

De la atención farmacéutica en los hospitales y centros socio-sanitarios

### Artículo 27.-

- 1.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 3, la atención farmacéutica de los hospitales y, en su caso, centros sociosanitarios se prestará a través de los servicios de farmacia hospitalaria y de los depósitos de medicamentos.
- 2.- Será obligatorio el establecimiento de un servicio de farmacia hospitalaria:
- a) En todos los hospitales que dispongan de cien o más camas.
- b) En aquellos hospitales de menos de cien camas que, en función de la tipología y volumen de actividad asistencial que implique una especial cualificación en el empleo de medicamentos, se determinen reglamentariamente.
- 3.- Será obligatorio el establecimiento de un depósito de medicamentos en los hospitales que dispongan de menos de cien camas, siempre que, voluntariamente o por estar incluidos en el punto b) del apartado anterior, no tengan establecido un servicio de farmacia hospitalaria.
- 4.- A los efectos de esta ley tendrán la consideración de centros sociosanitarios aquellos que atiendan a sectores de la población tales como ancianos, minusválidos y cualesquiera otros cuyas condiciones de salud requieran, además de las atenciones sociales que les presta el centro, determinada asistencia sanitaria.

Estos centros vendrán obligados a establecer servicios de farmacia o depósitos de medicamentos en los casos y términos que se definan reglamentariamente a propuesta de los Departamentos competentes en la materia, en función de la ca-

populazioak behar duen medikuntza edo farmakologi aldetikako atentzioaren eretzean.

## 28. atala.-

- 1.- Ospitale eta, hala badagokio, zentro sozio-sanitarioetako farmazi zerbitzuek ondorengo eginkizunak bete beharko dituzte:
- a) Ospitalerako beharrezkoak diren medikamentuen hautespenerako disziplinarreko prozesuan parte hartzea, eraginkortasun, segurtasun, kalitate eta kostuaren irizpideen arabera.
  - b) Ospitale barruko ihardueretarako beharrezkoak diren botikak eskuratzeko, kalitatea kontrolatzeko, beharizanak asetzeko, almazenatzeko, berorien baliotasun-epea, kontserbazioa, zaintza, formula magistralak edota bulego-prestakinak prestatzeko eta horiek dispensatzeko eginkizunen erantzukizun teknikoa garantizatu eta beren gain hartzea, eta baita ospitale kanpoko tratamenduetarako behaketa, gainbegiratze eta kontrol berezia eskatzen duten medikamentuena ere.
  - c) Medikamentuen banaketarako sistema razional bat ezartzea, prozesuaren segurtasuna, azkartasuna eta kontrola garantizatzeko moduan.
  - d) Ikerketa klinikoaren fasean dauden produktuak zaindu eta dispensatzea.
  - e) Medikamentuei buruzko informazio-sistema egokia martxan jartzea, bai pertsonal sanitarioari eta baita populazio asistuari ere datu objektiboak eskaini ahal izateko.
  - f) Sorgogarriei eta psikotropoei buruzko legeria eta baita kontrol berezia behar duen beste edozein medikamentuena ere bete dadin saiatzea.
  - g) Ospitale barruko farmakozaintza-sistema bat ezartzea eta medikamentuak erabiltzeko ikerketa sistematikoak eta, bere kasuan, farmakozinetika klinikoko iharduerak aurrera eramatea.
  - h) Medikamentuen eta produktu sanitarioen ebaluazio zientifikorako botikari baten eza-gutzak baliagarriak izan daitezkeen kasuetan ospitaleko batzordeetan parte hartzea.
  - i) Medikamentu berrien ikerketa-programak garatzea eta botika horien entseu klinikoe-tan parte hartzea.
  - j) Bere eskuduntzakoak diren arazoetan heziketa mailako iharduerak burutzeko, pertso-

pacidad del establecimiento y del tipo de atención médica o farmacológica que requiera la población atendida.

## Artículo 28.-

- 1.- Los servicios de farmacia de los hospitales y, en su caso, de los centros sociosanitarios deberán realizar las siguientes funciones:
- a) Participar en el proceso multidisciplinar de selección de los medicamentos precisos para el hospital, bajo criterios de eficacia, seguridad calidad y costo de los mismos.
  - b) Garantizar y asumir la responsabilidad técnica de la adquisición, calidad, cobertura de necesidades, almacenamiento, periodo de validez, conservación, custodia, preparación de fórmulas magistrales o preparados oficinales y dispensación de los medicamentos precisos para las actividades intrahospitalarias y de aquellos otros, para tratamientos extrahospitalarios, que requieran una particular vigilancia, supervisión y control.
  - c) Establecimiento de un sistema racional de distribución de medicamentos que garantice la seguridad, rapidez y control del proceso.
  - d) Custodia y dispensación de los productos en fase de investigación clínica.
  - e) Implantación de un sistema de información sobre medicamentos que proporcione datos objetivos tanto al personal sanitario como a la población asistida.
  - f) Velar por el cumplimiento de la legislación sobre estupefacientes y psicótrpos o cualquier medicamento que requiera un control especial.
  - g) Implantación de un sistema de farmacovigilancia intrahospitalario y realización de estudios sistemáticos de utilización de medicamentos y, en su caso, actividades de farmacocinética clínica.
  - h) Participar en las comisiones hospitalarias en las que puedan ser útiles los conocimientos de un farmacéutico para la evaluación científica de medicamentos y productos sanitarios.
  - i) Desarrollar programas de investigación y participar en los ensayos clínicos de nuevos medicamentos.
  - j) Llevar a cabo actividades educativas sobre cuestiones de su competencia dirigidas tan-

nal sanitarioari bezala baita ospitaleko erabiltzaileei ere zuzenduak.

k) Medikamentuaren legeko 87. atalean aipatzen diren egitekoak betetzeko, zonako lehen mailako atentzioaren eta espezialitateen egiturarekin lankidetzan aritzea.

- 2.- Ospitaleko farmazi zerbitzuaren arduraduna ospitale-farmazian espezialista den botikari bat izango da, eta bere erantzukizunaren azpian garatuko dira aurreko idatzian aurrikusitako eginkizunak.
- 3.- Osasun-zentroa zein motatakoa den eta bertan egiten den iharduerak zein neurri duen kontu, erregelamenduz finkatuko da ospitaleko farmazian espezialista diren botikari laguntzaileen eta pertsonal laguntzailearen beharrezana farmazi zerbitzuan.
- 4.- Farmazi zerbitzua irekia dagoen bitartean, bertan gutxienez ospitaleko farmazian espezialista den botikari batek egon beharko du. Hala ere, farmazi zerbitzuen antolamenduak eta funtzionamendu-erregimenak posible egin beharko du medikamentuak eguneko 24 orduetan erabili ahal izatea.

#### 29. atala.-

- 1.- Ospitale eta, hala badagokio, zentro sozio-sanitarioetako medikamentu-gordailuak botikari baten ardurapean egongo dira, eta bere presentzia eta iharduketara profesionalaren pean eramango dira aurrera, gordailuak funtzionatzen duen bitartean, lege honetan aurrikusitako eginkizunak.
- 2.- Erregelamenduz, eta aipatu zentroek dituzten ezaugarrien arabera, finkatuko da medikamentu-gordailuak funtzionatzeko gutxienezko denbora, zentroaren funtzionamendu-erregimenak eguneko 24 orduetan botikak erabiltzeko modua egin behar duela ahaztu gabe.
- 3.- Medikamentu-gordailuek, gutxienez ere, 28. atalaren a)-tik f)-rako txataletan ospitale eta zentro sozio-sanitarioetako ospitale-farmaziako zerbitzuentzat adierazten diren eginkizunak bete beharko dituzte.

#### 30. atala.-

- 1.- Bai farmazi zerbitzuek eta baita medikamentu-gordailuek ere kokaleku egokia eduki beharko dute, eta barne-komunikazio egokia.
- 2.- Erregelamenduz finkatuko dira horiek osatu behar dituzten area edo eremuak, hala nola hartu behar duten azalera ere, esleitutako eginkizunak behar bezala bete ahal izateko.

to al personal sanitario como a los usuarios del hospital.

k) Colaborar con la estructura de atención primaria y especialidades de la zona en el desarrollo de las funciones señaladas en el artículo 87 de la ley del medicamento.

- 2.- El responsable del servicio de farmacia hospitalaria será un farmacéutico especialista en farmacia hospitalaria, y bajo su responsabilidad se desarrollarán las funciones previstas en el apartado anterior.
- 3.- En función del tipo de centro y del volumen de actividad que en el mismo se desarrolle, se establecerá reglamentariamente la necesidad de farmacéuticos adjuntos especialistas en farmacia hospitalaria y de personal auxiliar en el servicio de farmacia.
- 4.- Mientras el servicio de farmacia permanezca abierto contará con la presencia de, al menos, un farmacéutico especialista en farmacia hospitalaria. No obstante, la organización y el régimen de funcionamiento de los servicios de farmacia deberá permitir la disponibilidad de los medicamentos durante las 24 horas del día.

#### Artículo 29.-

- 1.- Los depósitos de medicamentos de los hospitales y, en su caso, centros sociosanitarios estarán bajo la responsabilidad de un farmacéutico bajo cuya presencia y actuación profesional se desarrollarán, durante el tiempo de funcionamiento del depósito, las funciones previstas en esta ley.
- 2.- Reglamentariamente, y en función de las características concurrentes en los centros citados, se determinará el tiempo mínimo de funcionamiento de los depósitos de medicamentos, sin perjuicio de que el régimen de funcionamiento del centro debe permitir la disponibilidad de los medicamentos durante las 24 horas del día.
- 3.- Los depósitos de medicamentos deberán desarrollar, como mínimo, las funciones que en los epígrafes a) al f) del artículo 28 se señalan para los servicios de farmacia hospitalaria de los hospitales y centros sociosanitarios.

#### Artículo 30.-

- 1.- Tanto los servicios de farmacia como los depósitos de medicamentos deberán disponer de una localización adecuada y una buena comunicación interna.
- 2.- Reglamentariamente se determinarán las diferentes áreas que deben componerlos, así como la superficie que deben ocupar, al objeto de desempeñar adecuadamente las funciones encomendadas.

## VII. ATALBURUA

### Produktu farmazeutikoen banaketa

#### 31. atala.-

- 1.- Produktu farmazeutikoak lege honen 3.1.a) atalean aurrikusitako atentzio farmazeutikoko establezimendu eta zerbitzuetara banatzeko, banaketako almagenen bitartekaritza erabili ahal izango da.
- 2.- Banaketako almagenek baliabide pertsonal, material eta tekniko behar adina hornitutako instalazioak edukiko dituzte, medikamentuen identitate, kalitatea eta gutxienezko izakinak garanti-zatu ahal izateko, eta baita botika horien almagenamendua, kontserbazioa, zaintza eta banaketa garantizatze modukoa den sistema eraginkor bat ere.
- 3.- Banaketako almagenek zuzendari tekniko farmazeutiko bat edukiko dute, eta berori izango da bertan egiten diren lan tekniko-sanitario guztien arduraduna.  
  
Iharduera-bolumenaren arabera finkatuko da botikari laguntzaileen beharizana, zeina erregelamenduz arautuko den.
- 4.- Abenduaren 20ko 25/1990 Medikamentuaren legearen 79.2 atalean xedatutakoarentzat inolako kalterik gabe, erregelamenduz finkatuko dira establezimendu hauen instalazioei eta funtzionamenduari dagozkien beharrezko betebeharrak, atentzio farmazeutikoaren prestazioko jarraipenaren printzipioa betetzeko moduan.

## VIII. ATALBURUA

### Atentzio farmazeutikoko establezimendu eta zerbitzuen baldintzak

#### 32. atala.-

Lege honetan arautzen diren atentzio farmazeutikoko establezimendu eta zerbitzuak ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Osasun Sailaren aurretiazko baimen administratibo-sanitarioa, bere sorkuntza, eskualdatze, obra, lekualdaketa edo itxierarako.
- b) Funtzionatzeko baimena, Osasun Sailak emango duena, behin ikuskapen-akta egokiaren bitartez a) idatzian aipatzen den baimenaren baldintza eta betebeharrak behar bezala betetzen direla egiaztatu ondoren.
- c) Erregistroa eta katalogazioa.
- d) Eskatzen zaizkien osasun-informazio eta -estatistikak elaboratu eta osasun-administrazioari bidaltzea.
- e) Solidaritate eta integrazio sanitarioaren printzi-

## CAPÍTULO VII

### De la distribución de productos farmacéuticos

#### Artículo 31.-

- 1.- Para la distribución de productos farmacéuticos a los establecimientos y servicios de atención farmacéutica previstos en el artículo 3.1.a) de esta ley podrá utilizarse la mediación de los almacenes de distribución.
- 2.- Los almacenes de distribución dispondrán de instalaciones suficientemente dotadas de medios personales, materiales y técnicos para garantizar la identidad, calidad y existencias mínimas de medicamentos, así como de un sistema eficaz y capaz de garantizar el almacenamiento, conservación, custodia y distribución de los mismos.
